

HIZKUNTZ GIZAESKUBIDEEN BILA: RECIFEko ADIERAZPENA

Azken urteotan, herri txikietan bereziki, gizaeskubideen munduak aldaketa nabariak erakartzen dihardu bere arlora, herri-edo nazio- txiker horiek beren nortasunaren ezaugarriak (besteak beste, beren hizkuntza) defendatzeko orduan erabili dituzten mekanismo juridikoen burutzearen aldetik batipat.

Honela, gizaeskubideen joera abstraktu eta indibidualista batetik, jokabide kolektibo batetara igaro da, batidanik ezagutu izan ditugun gizaeskubideen formulazio klasikoak gainditu nahi izate gogor batez. Arestian Ardanza lehendakariak Europako kapitala den Estrasburgo hirian esan duenez, ikuspegi berri hau labur bilduz.

«Si se trasciende de la concepción individual de los derechos humanos comprobaremos que hay otros derechos no menos importantes como, por ejemplo, el derecho a usar la propia lengua o los derechos de las minorías nacionales». (Deia, 1988-7-20)

Izan ere, honelako ideiak aintzinatik datorren gizaeskubideen tradizioan errotzen dira bete-betean, haren zati edo osagarri legez. Halere, tradizio hori ukatzeke, haruntzago joaten saiatuko gara hemen, hizkuntzaren eremuan bederen, ihaz Recifen (Brasil) eta UNESCO-ren babesean egin zen bilceraren ondorioak honaxe ekarteko, euskarari aplikagarri izan dakizkiokeelakoan.

Bilera hartan AIMAV (Kulturen arteko komunikazioaren Bergarapenerako Elkarte Internazionala) delako Elkartearen partaideek azaldu zituzten, lehenengoz, Nazioarteko gizaeskubide linguistikoen Karta edo Adierazpenerako bidea eta lehen urratsak, geroko batetan, dagokion erakundeak, hau da, Nazio Batuek, zehatzago formulatzekotan.

Honek, alabaina, eramaten gaitu beste leku batera, hots, historian zehar eraikitako gizaeskubideen tradizioa aipatzera, laburkiro eta gaingiroki behintzat, hildo berri honen aurrekin gisa. Tradizio honen lehen aipamena, aspalditik topikoa bihurtu den aldetik, Karta Magnari (1215) egin behar zaio, Inglaterrako erregea zen Juan Sin Tierrak bertoko aitonen semeeci eskuraturiko mesede eta eskubidez osaturiko textuari. Harik aurrera, etenbako lerro batetan kokaturik etorriko dira Erdi Aroko testu aldra haundia (Bizkaiko Foru Zaharra-1452- eta Berria-1526-ahazteke) non pertsonaren eskubide alienaezinen ideiak bere bidea egingo duen. Ameriketako aurkikundeak, Espainiar kororaen Indietako legeek eta jada, filosofia arrazionalista batez hornituriko «Bill of Rights» amerikarrak (1688) gizaeskubideen lehen adierazpen formalera eramango gaituzte, egun ezagutzen ditugun tankerakoa: «Gizona eta Hiritarren Eskubideen Deklarazioa» (1789) Frantzia iraultzailearen giroan egosia (1789) eta harez geroko gizaeskubideen zutabe teorikorik nagusia (1).

Bertan esaten zaigu, letra handitan:

«Artículo 1.º Los hombres nacen y permanecen libres e iguales en derechos. Las distinciones sociales solo pueden fundarse en la utilidad comun» (2)

XIX. mendeko konstituzionalismoak ez du besterik egingo ideia hauek zabaltzea eta egokitzea baino. Honela Lehen Mundu Gerrarteko gizaeskubideen ideiak pertsona indibidualistaren inguruan dantzatuko du, liberalismo eragilearen poderioz. Gerrarteko abagunean sorturiko gutxiengo nazionalen aldeko nazioarteko zuzenbidea tarte bat besterik ez da izango, gizaeskubideak pertsona hutsaren ardatzatik gizarte eta ekonomiaren arlo-

ra garraiatzeko prozesuan.

Beraz, Bigarren Mundu Gerratea bukatu orduko jaio berri diren Nazio Batuetan gizaeskubideen kezka nabarmenak izango dira, batez ere aurreko errejimen totalitarioen gehiegikeriak ikusi eta gero. Eta honekin batera ere, estatu sozialistek bulkatu-riko gizarte eta ekonomi ikuspegia, alderdi biak, politiko eta ekonomikoa, textuinguru berean jartzeko asmoz. Hala sortuko da Aro Modernoaren gizaeskubideen texturik gaiurrena, hots, Nazio Batuen Gizaeskubideen Deklarazio Unibertsala (1949) bere lehen artikulua haxe delarik, gaztelarazko esanari jaramonik eginez geroz

ARTICULO 1. Todos los seres humanos nacen libres e iguales en dignidad y derechos y, dotados como están de razón y conciencia, deben comportarse fraternalmente los unos con los otros.

Gizaeskubidezko joran honetatik euskaldunak ez dira kanpo eta handik gutxira, Guatemalako «Euzko-Gogoa» aldizkarian, 1950. urteko Martxoaren alean textu horren lehen euskarazko itzulpena dator, hain zuzen ere zenbait puntutan gerokoan egingo diren euskaralbenen alderantzizkoa. Euskaldun irakurlearentzat jakingarri bezala, hemen jarri ditugu, segidan, artikulua baten hiru itzulpenak. Lehenak, «Euzko-Gogoa»renak, nor-nori aditza erabiltzen du:

«3garren atala.

Zor zaio edozein gizoni, bizia, bere esku izatea ta segurtzia».

Bigarrenak (UZEI-Filosofia-BBB-3) osterantzeko formulazioa dakar:

«3. Artikulua

Gizabanako orok badu bizirako libertaterako eta bere bu-ruaren segurtasunerako eskubidea».

Hirugarrena, berriz, hildo beretik datorkigu (Patxi Uribarren-Karmel-1985-4):

«3.-Pertsona orok du askatasunerako eta bere pertsonareki-ko segurtaterako eskubidea».

Textu hauek, halare, printzipio eta deklarazio hutsetan ari-

tzen ziren, estatuen arteko harremanetan indargeak izanik. Horrexegatik eta nolabait Nazio Batuen estatu partaideak behartze-ko gogoz, Itun (ingleserazko «covenants») batzuk burutu ziren, estatuek izenpetutakoan indarrean egon zitezten eta haien eus-leak ziren Nazio Batuek estatu hausleen ekintzak zigortu ahal zitzaten. Paktu edo Itun horiek bi izan ziren, erderazko deituren arabera: «Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos» (1966) eta «Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales» (1966). Asmo honen barne ere, Europako «Convención de salvaguardia de los Derechos del Hombre y de las Libertades Fundamentales» (Roma 1950) delako textuak sor-tu zituen egun Europa mailan, gizaeskubidezko zereginetan eza-gunenak diren bi erakundeak: «Comisión europea de Derechos Humanos» eta «Tribunal Europeo de Derechos Humanos».

Gizaeskubideak eta Hizkuntza

Orain arte aipaturiko ahaleginak ailaginakoak izan badira ere, beren helburu nagusietatik at gelditzen zen, hein handi ba-tetan behinik behin, hainbat eskubideen garapena. Honela kul-tur eskubideen tartean, norberaren hizkuntzarekiko eskubidea aitortua izan arren, esaterako Gizaeskubideen Deklarazio Uni-bertsalaren 26. Artikuluan, oso osterantzekoa zen, jarraian ikusi-ko dugun bezala, errealitate. Moeta honetako eskubideek galdatzen zuten zertxobait gehixeago bere garapenerako, hizkuntz diskri-minazio ezatik hasita, mintzairaren promoziora heltzeko, batipat hizkuntza hori gutxiengotua bazegoen eta gainera persegitua (euskararen kasua aurreko errejimenean), azken finean, alderdi guztietatik bizitzeko laguntza gogor baten beharraz.

Gauzak honela, ezari-ezarian sartu ohi da gizaeskubideen tradizioan, jomuga indibidualista eta klasikoa gainditzeko grina, honela gizona eta bere ingurumariak haintzakotzat hartuz, eta gizon horren ingurunea jagoteko grina. Hain zuzen, hori gizo-nori moldatzen duten berarizko zerak ditugu (kultura, hizkuntza et abar luze bat) gizon horren taiuzko erak eta eskubide abstrak-tuen izenean egin ziren hainbat kasutako gehiegikeriak ekidite-

ko bide bakarrak, hala nola Frantziako Iraultzaren garaian nonahi aldarrikaturiko adierazpen askatasuna, iraultzaileek hizkuntza txikiakiko joera kaltegarria areagotzen zuten une berean (3) edota Espainia non XIX. mendeko liberalismoaren izenean, eskubide liberal eta formalen aldamenean, euskal foruek mamituriako sistema osoa ezereztu bait zen.

Beraz, lehen esan dugunez, herri txikiak beren nortasuna osatzen duten ezaugarriez kezkatu agertzen diranean, irtenbidea mende honetako gerratarako gutxiengo nazionalen zuzenbidea izango da, baina eremu urriko aplikagarritasun batez. Eta ondorengo, sistema honen barne «zerbait» gehiagoren bila joaterakoan, ulergaitzasuna eta antzekorik aurkitzea, erruz emango den fenomeno izango dugu.

Baina gaur errealitate hutsa bihurtu da herri gutxiengotuek beren nortasuna berreskurapenerako duten xedea eta hizkuntza da, hain zuzen ere, asmo horren ikurrik ezinbestekoena bilakatu zaigun elementua. Ikus bestela Helsinkiko Azken Akta (1975) Europako herri guztiek sinatu zuten akordua (orduko Espainia ere barne zelarik):

Los estados participantes respetarán los derechos humanos y las libertades de todos, incluyendo la libertad de pensamiento, conciencia, religión o creencia, sin distinción por motivos de raza, sexo, idioma o religión.

Los Estados participantes en cuyo territorio existan minorías nacionales respetarán el derecho de los individuos pertenecientes a tales minorías a la igualdad ante la ley, les proporcionarán la plena oportunidad para el goce de los derechos humanos y las libertades fundamentales y, de esta manera, protegerán los legítimos intereses de aquellos en esta esfera.

Honetan datza, bestalde ere, eta ez bairik gabe, jarraiangoa baieztapena, alegia, egun ez dela nahikoa «hizkuntza dela eta inor ez da diskriminatua izango» esatea eta aldarrikatzea, beharrezkoa bait da diskriminazio eza ulertzea beste norabide positibo batetan, giza eskubideen sentidurik egiazkoena haintzakotzat

hartu nahi bada gutxienez Eta honek eskatzen du beste gizaeskubide moeta bat formulatzea, formulazio horretan ikuspegi hauek edukitzeko. Horretan aritu zen, esaterako Skutnabb Kangas irakaslea ihazko Bigarren Euskal Mundu Kongresuan, gizaeskubide linguistikoen adierazpen internazionala eskatzera koan. (4)

Erreka beretsutik ere ibili da aurtemeen Europako Kontseiluak «Eskualdeetako edo gutxiengotueta Hitzkuntzen Karta europarra» proposatzerakoan, haren eritziz, hizkuntza hauek, Europarentzako czaugarri garrantzitsuak bait dira, bere hitzaurrean adierazten zaigunez. Gerokoan hamar artikuluetan zehar hizkuntza hauei «status» eta berme juridiko batzuk ematen zaizkie karta honetan, horrela alor honetan Europa mailan eman den lehen pausoa zehaztuz.

RECIFE ko Adierazpena

Aurreko testuak agirian utzi badigu ere bere jokabidea, sail honetan eta mundu mailan egin den saiorik gotorrenean murgilduko gara berchalakoan, ihazko Urriari Recifen (Brasil) bilduriko hamar herrietako ordezkariak lorturiko ondorioak azaltzeko. UNESCOarekin (Nazio Batuek duten nazioarteko gai eta arazo kulturaltako erakundea) batera AIMA V izeneko elkar-tearen irakasleek sakonki aztertu zuten eskubide linguistiko eta kulturalen formulazioaren beharra eta bide batez zehazte bide horretan honelako adierazpena egin zuten, UNESCOaren bidez, Nazio Batuen eztabaidetara helaraztekoa:

«AIMA V Kulturen arteko Komunikazio Bergarapenerako Elkar-te internazionalaren giza eta kultur eskubideei buruzko 22. Mintegiak, Pernambuco Unibersitate Federalesko Zuzenbide Fakultatean bilduta (Recife, Brasil) 1987, Urriak 7-9, Francisco Gomes de Matosen lehendakaritzapean:

Konsideraturik Berdintasun, Elkartasun, Askatasun, Justizi, Bake eta Elkaradieraztasun printzipio eta idealek, gizaeskubidekiko nazio eta nazioarteko lege eta instrumentuek bultzatu di-

tuztenek, hizkuntz ikuspegia ezinbestekoa dutela:

Aitorturik hizkuntzen ikasketak eta erabilerak, cuspenak eta bultzaketak, Estatu, pertsona zein taldeen aurrerapen intelektuala, heziketazkoa, soziokulturala, ekonomikoa eta politikoa laguntzen dituztela;

Oharturik Gizaeskubideen Deklarazio Unibertsalak, gizaeskubideei buruzko Nazioarteko Itunek eta horrelako beste herri arteko instrumentu unibertsalek eskubide kulturalari buruzko neurriak hartzen dituztela;

Jakitun izanik giza eta taldeen hizkuntz onarpena eta bultzaketa, kulturen tartean eta barnean, custeko eta areagotzeko beharraz;

Argudiaturik hizkuntz eskubideek ezagutuak, bultzatuak eta beteak izan beharko luketela, nazio, eskualde eta nazio Artekiro, hizkuntza guztien duintasuna eta bardintasuna goratzeko eta ziurtatzeko lain bederen;

Ezaguturik aurreiritzi, diskriminazio edota ezein hizkuntz menpekotasun, injustizi eta zapalkuntza deuseztatzeko legislazioaren beharra, batez ere publikoarekiko zerbitzu, lanpostu, heziketa sistema, epaitegi eta mass medien moduko textuinguruetan;

Azpinarraturik hizkuntz eskubideei buruz indibiduo, talde eta estatuak sentiberatzeko beharra, hizkuntz aniztasunerako gizarte joerak oldartzeko eta gizarte egiturak aldatzeko, hizkuntza desberdinen eta hizkuntz barietateen erabiltzaileen arteko berdintasunerantz;

Areago, Nazio Batuen Estatu partaideen erakunde egokiek duten indibiduo zein taldeekiko eskubide linguistikoci buruzko legezko berme zehatzen beharraz *Ezagupide izanik*;

Gomendatzen du Nazio Batuek HIZKUNTZ ESKUBIDEEN DEKLARAZIO edo ADIERAZPEN UNIBERTSALA onartzeko eta betearazteko urratsak eman ditzatela, honek

eskatuko lukeen nazio, eskualde eta nazioarteko hizkuntz politiken birformulazioarekin batera» (5)

Andrés Urrutia

Oharrak

(1) Gizaskubideen bilakaera historikoaren testuak irakur daitezke, honako liburu hauetan, beste askoren tartean: «Textos basicos sobre Derechos humanos» Edicion a cargo de Gregorio Peces Barba, Madrid 1973 edota «Los Derechos Humanos» Antonio Truyol y Serra «Tecnos» Madrid 1982.

(2) Ikus «Textos basicos sobre Derechos Humanos» 88 orr.

(3) Ikus Julen Urkizaren «Direla 200 urte» Frantziako Iraultza Nagusia (1789-1799) Gertakari baten balantzea» bereziki «Mintzaira» saila in KARMEL 1988-2 / 36 orr.

(4) Tove Skutnabb-Kangas «Linguicism in Education or how to kill a people without genocide» 11, 12, eta 13 orr. / in II. Euskal Mundu Biltzarra - Euskara Biltzarra -II eremuko hitzaldiak - Donostia 1987.

(5) Honen jatorrizko testua, ingelesaz, «International Journal of the Sociology of Language» aldizkarian agertu da 71. zenbakian / Mouton de Gruyter editor / Berlin 1988.